

Euskaltzaindiak antolaturik eta Bilbao Bizkaia Kutzak babestuta 1991.eko sariak hurrengook izan dira, hots:

1. **Resurrección M.ª de Azkue saria:** *Narrazio eta Poesia. Maila bitan banatua, adinaren arabera, 10-17 urteetako gazteentzat (*)*.

Epaimahaikideak: Jose Antonio Retolaza,
Carmelo Etxenagusia eta
Juan Luis Goikoetxea.

Sarien-irabazleak:

A. Txikiak:

1. Unai Goti Elordi.
2. Yolanda Larreategi-Maider Olabarria.
3. Ana Urizarbarrena.

B. Nagusiagoak:

1. Aitor Sarriegi Galparsoro.
2. M. Jesus Garcia Berasategi.
3. Unai Intxaurreaga Pujana.

(*) Sariok Bilboko Arriaga antzokian, 1991-XII-21ean, banatuak izan ziren.

2. **Txomin Agirre saria (*)**:

Epaimahaikideak: Xabier Gereño,
Felipe Juaristi eta
Arantza Urretabizkaia.

Sari-irabazlea: Jean Irigaray: *Amazonen Deia. I Pedro Urzua.*

(*) Saria Euskaltzaindiko egoitzan, 1991-XII-27an, banatua izan zen. Milioi bat pezetatakoa.

3. Toribio Altzaga saria (*):

Epaimahaikideak: Daniel Landart,
Patri Urkizu eta
Eugenio Arozena.

Sari-irabazlea: Luis Haranburu Altuna: *St. Cyran (Jainkoa gorderik).*

(*) Saria Euskaltzaindiko egoitzan, 1991-XII-27an, banatua izan zen. Seiehun mila pezetatakoa.

4. Felipe Arrese y Beitia saria (*):

Epaimahaikideak: Bitoriano Gandiaga,
Mikel Lasa eta
Juan Mari Lekuona.

Sari-irabazlea: Xabier Lete: *Zentzu antzaldatuen poemategia.*

(*) Saria Euskaltzaindiko egoitzan, 1991-XII-27an, banatua izan zen. Seiehun mila pezetatakoa.

5. Mikel Zarate saria (*):

Epaimahaikideak: Andolin Eguzkitza,
Adolfo Arejita
eta Alfonso Irigoien.

Sari-irabazlea: Patri Urkizu: *Agosti Chaoren bititza eta idazlanak (1811-1858).*

(*) Saria Euskaltzaindiko egoitzan, 1991-XII-27an, babatua izan zen. Zortziehun mila pezetatakoa.

“RESURRECCION MARIA DE AZKUE” sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia

Bilbo, 1993-01-30

Jose Antonio Arana Martija

Bilbon, 1993.eko urtarrilaren 30ean, Bilbao Bizkaia Kutxaren Elkanoko Kultur Aretoan banatu ziren 1992ko Resurrección M.^a de Azkue izeneko narratiba eta olerki sariak, aipatu erakundeak eta Euskaltzaindiak urtero ematen dituenak. Mahaian zeuden Daniel Soloaga jauna BBK ordezkatzeko eta Euskaltzaindiaren izenean Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina, Jose Luis Lizundia, idazkariordea eta Juan Luis Goikoetxea, epaimahaikoen izenean. 1991ko sariak argitaratzen dituen liburu ederra, Tamayo jaunak irudiz apaindua ere aurkeztu zen ekintza berean.



Ezkerretatik eskumatara:

Jose Antonio Arana Martija euskaltzain osoa, Daniel Soloaga Bilbao Bizkaia Kutxako Kultura Sailekoa eta Juan Luis Goikoetxea Arrieta “Resurreccion Maria Azkue” Sariko epaimahaikoa eta euskaltzain urgazlea.

Saria jasotzen duena: Aitor Sarriegi.


Sari hauek 1986an sortu zituela Bilbo Aurrezki Kutxak esan zuen hasierako hitzetan Arana Martija jaunak eta azken bi urteotan, kutxa hori Bizkaiko Aurrezki Kutxarekin bat egin denetik, Bilbao Bizkaia Kutxak jarraitzen duela Euskaltzaindiarekin batera ematen adierazi zuen. Haur eta gazteek euskaraz idatz zezaten hainbat arduratu zen Azkue jauna, bai Jardinesko Ikastetxean baita Bizkaiko Institutuan ere, nola poztuko zen 174 lan aurkeztu direla ikusteaz azpimarratu zuen euskaltzainak. Azkuek berak ere ipuinak idatzi zituela eta *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan idazleak sortzen ahalegindu zela aretoan zeuden entzule ugariari adierazi zien.

Jon Otaegi Otaegi, Xabier Altzibar Aretxabaleta eta Juan Luis Goikoetxea Arrieta jaunek osotutako epaimahaikoek erabakitako sariak iragarri zituen Jose Luis Lizundia idazkariordeak eta banan-banan eman zitzaizen irabazleei:

1979/1982. urteetan jaiotakoak

NARRATIBA

- | | |
|--------------------------------|-----------------------------------|
| 1.º Saria: Maia Duguine | Lana: "Amets eta negar" |
| 2.º Saria: Haritz Urizabarrena | Lana: "Halako batean" |
| 3.º Saria: Nagore Amondarain | Lana: "Hosto baten pentsakizunak" |



Ezkerretatik eskubitara:

Jose Antonio Arana Martija euskaltzain osoa, Daniel Soloaga Bilbao Bizkaia Kutxako Kultura Sailekoa eta Juan Luis Goikoetxea Arrieta "*Resurreccion Maria Azkue*" Sariko epaimahaikoa eta euskaltzain urgazlea.

Saria jasotzen duena: Olatz Merkader.

OLERKIA

- | | |
|-----------------------------|--------------------|
| 1.º Saria: Beñat Ugartetxea | Lana: “Ikasturtea” |
| 2.º Saria: Unai Goti | Lana: “Akanpada” |
| 3.º Saria: Eñaut Ibarra | Lana: “Janariak” |

1975/1978 urteetan jaiotakoak

NARRATIBA

- | | |
|-----------------------------|--------------------------------|
| 1.º Saria: Erika Usabarrena | Lana: “Love Story” |
| 2.º Saria: Aitor Sarriegi | Lana: “Zuhaitz bat, Herri bat” |
| 3.º Saria: Olatz Merkader | Lana: “High on this Word” |

OLERKIA

- | | |
|----------------------------|--------------------------------|
| 1.º Saria: Iñaki Azurmendi | Lana: “Hizki ttipien harmonia” |
| 2.º Saria: Olatz Merkader | Lana: “Prometeo eta ni” |
| 3.º Saria: Aitor Sarriegi | Lana: “Hautsak jan naute” |

Saridunak zein ikastetxetatik zetozen ere aipatu zen eta bultzatzaile eta laguntzaile izan dituzten maisuak ere, aipamen berezia Patxi Ezkiaga, Donostiako La Salle-ko irakaslearentzat izan zelarik

Bilbao Bizkaia Kutzak 1991.urteko saridunen lanekin argitaratu duen liburu ederra aurkeztu zuen Juan Luis Goikoetxeak, saritutako lan batzuen zati batzuk irakurriz. Saridunekin argazkiak egin ondoren, *Globo gorria* filmea eman zen. Eta honekin bukatu zen eginkizuna.